


UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2019/11/19) Hurrengo saioa: 2019/12/03	Azaroaren 25a	Azaroaren 25a, (Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko eguna) oinarritzat hartuta, aurreikusten diren ekintzen plangintzaren jakinarazpena prestatu eta banatu da: <ul style="list-style-type: none">- azaroaren 23an: puntu lila josi eta Udaletxeko balkoian jarri- azaroaren 25ean: genero indarkeriak aztertu eta identifikatzeko tailerra egin.	

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/11/26) Hurrengo saioa: (2019/12/10)	Abenduko ekintzen plangintza	Abendurako aurreikusitako plangintza osatu da: solasaldi literarioa, Euskaraldia, Bertso afaria, Kontsumobide tailerra, Herri Batzarra, Ramon Ayerzaren hitzaldia, Gabonak eta Herriko produktuen azoka. Kontsumobide tailerreko ordutegia aldatzeko saiakera egitea planteatu da (15:30etan, adibidez). Deialdiarekin batera, herritar ororentzat zuzenduta dagoela ere jakinaraziko da.	Kontsumobide tailerreko ordutegia zehaztu eta jakinarazpena zabaldu
	Euskaraldia eta Bertso afaria	Euskaraldiaren lantaldean jorratutakoa adierazi da: abenduaren 6ko ekitaldiak izango duen egitaraua eta beharrezkoa izango den materialak izendatu dira. Bi ekintza hauek adierazten dituen jakinarazpena ere prestatu da.	Euskaraldiaren lantaldearekin koordinatu
	Euskara sustatzeko ekintzak eta diru-laguntzak	Euskara sustatzeko ekintzak arautu ahal izateko testu formala sortuko dela adostu da. Honekin batera, Udal Batzordera eramango da zenbateko aurrekontua izango duen adosteko (2020ko aurrekontuetan txertatzeko) Web gunean jarriko da	Idazkariarekin batera, lanketari jarraipena eman



LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena 2019/11/13 Hurrengo saioa: (2019/11/27)	Alegiako plubialak	Itsasoko udalak eskatuta Donostiako Miramonen Foru Aldundiko Errepideetako zuzendariarekin bilera izango da gaia behin-betiko aztertu eta uren bideratzea zuzen dezaten. Gorka alkatea, Maixabel zinegotzia eta Estibalitz aparejadorea bertaratuko dira abenduaren 11n Bide batez, Alegia auzorako saihebidereen baten bideragarritasunaz ere galdetuko da.	Aparejadoreari dokumentazioa prestatzeko eskatu
	Udaletxeko proiektua	Teknaliak astebete barru egitura osoaren ikerketa amaitua izango du. Bestalde ganbarako zorua erreforatzeko hormigoiak egin dezakeen "forjado colaborante" funtzioa, CLT panelek egin dezaketenez, Teknaliak honen erabilera aholkatu du. Batzordearen oniritzia jaso du, abantailak baloratu ondoren.	Teknalia eta arkitektoari jakinarazi proiektua egokitzeko
	Joxe Mari Iparragireren urteurrena	Datorren urtean JM Iparragirre jaio zela 200 urte bete dira eta Zozabarrotxikin hil zenez, bertako monolitoaren ondoan Gernikako Arbolaren ondorengo bat landatuko da apirilaren 5ean. Ingurua prestatze aldera, eta dauden ideiak gauzatu aurretik, lursaila noren jabetzakoa den jakin behar dugu lehenbizi.	